

Paulo Agirrebaltzategi

LIBURUAREN «ATARIKOA» IDAZTEKO AUKERA eman dit Felix Placerrek. Eskerrik asko! Baiezkoa erantzun diot. Liburua –edo autorea– aurkezteko helburua izaten du atarikoak edo hitzaurreak. Felix Placerrek, ordea, ez du aurkezpen beharrik gure artean; eta eskaini digun liburu hau, berriz, hark orain arteko bere idatzietan landuriko alorreko uzta heldua dela esan daiteke, ikuspegi eta jakintza ezberdinak (historia, antropologia, erlijioen fenomenologia, soziologia, erlijio-kritika) bateratuz oraingoan. Autoreari utziz, beraz, liburuaren aitzin-hitza edo hitzaurrea, nahiago izan dut hitzondo edo «hitzoste» modukoa eskaini: zeinbait ohar gehigarri eta iradokizunen batzuk.

Ozaetan bizi izan zen Felix mutikotan, Urkila mendizeraren Araba aldeko magalean. Mendiaren bizkarrera igoz gero, aurrez aurre Arantzazu. Herriko erromes taldean joaten zen mutikotan Felix, mendiz eta oinez, Arantzazura udaberrian: Gailaur mendatera igo, Artasotik Arrantzazuko erreka arrora jaitsi eta handik gora aldapa piko-pikoan Arantzazuko Andre Mariaren santutegiraino... Monumentu prehistorikoen ibilbidea: Gailaurreko eta Artasoko trikuharriak, Gailardiko tumulua beheraxeago, Zekilagako zutarria Elgea gainean eta Antonkoba Arantzazu erreka zuloan; antzinako Arantzazu aldeko lurretan bizi izan ziren euskaldunen erlijio moldearen aztar-

nak dira horiek denak. Arantzazu arroko erreka, zalapartatsu eta zaratatsua udaberrian, gogoan geratu zitzaion nonbait Oza-etako mutikoari. Agian horren subkontzientetik atera du liburu honetako metafora nagusia: ibaiarena, bertaratzen diren erreka eta errekastoeekin.

Bitan banatzen du errekek Arantzazuko lurraldea: Artia-ko alde biguna –baso trinko itzaltsua eta berde oparoa–, eta Aloñako alde gogorra –harkaitz gris hautsiak eta soilune marroiak nagusi–. Hamaikatxo erreka biltzen ditu Arantzazu errekek, Artia-ko isurialdetik nahiz Aloñakotik.

Honetara kantatu zuen Bitoriano Gandiagak Arantzazuko lurraldeko bi paisaien alde:

Arantzazuko mendiak
Aloña eta Artia.
Haitz eta larre Aloña,
Artia baso hertsia;
Artia baso hertsia,
itzaltsu eta handia.

Arantzazuko mendiak
Aloña eta Artia.
Zuhaitzez, belardiz, haitzez,
tarteko zabal guztia,
hango ta hemengo etxe
banaka batek jantzia.

Arantzazuko mendiak
Aloña eta Artia.
Artia aspaldi zaharra,
Aloña garai berria;
bien arteko erreka
bien arteko zubia.

Arantzazuko mendiak
Aloña eta Artia.
Artia lotaratua,
Aloña iratzarria,
Aloña eraikin berri,
harri zaharrez eraikia.

Arantzazuko mendiak
Aloña eta Artia.
Artiaren ainuberantz
Aloñaren ibargia.
Aloñak begi-bistan du
Artiaren edestia.

Mendi bien arteko kontraste geografiko hori bien arteko kontraste erlijiozkoaren adierazgarritzat edo ikusi zuen Gandiagak: Artiaren sinboloa, Artaso prehistorikoa eta bertako trikuharri eta tumuluak; Aloñaren sinboloa, Arantzazu historikoa, bere Andre Mariaren santutegiarekin. «Artaso erori zenean Arantzazu jaiki omen zen», dio Gandiagak nolabaiteko herri-minez eta harriminez –Elgea gainean dago Zekilagako zutarri eroria; Aloñako Gorgomendi gailurrean gurutze tentea–. Artasoren espiritua lotan jarrita, Arantzazu iratzarri zuten (santutegia, etab.): «Artiaren ainuberantz / Aloñaren ibargia». Bada, ordea, jarraitasunik bien artean: «Aloñak begi-bistan du / Artiaren edestia». Honetara idatzi zuen beste behin: «Aloña eraikin berri, harri zaharrez eraikia».

Gandiagak berak biak maite ditu: Artaso eta Arantzazu; Arantzazu bizi du egunero barru-barrutik, eta sarri bisitatzen du Artaso. Areago, bi mendietako erlijio-moduen artean funtsezko kidesun espirituala aurkitu uste du, mendeetan barrena Arantzazuko lurralde zabalean bizi eta ibilitako jendeen kidesun eta identitatearen adierazgarri; jende horiekin guztiekin bat egiten du berak. Horietakoak dira Arantzazuko artzainak, antzinakoak eta gaurkoak, Placerrek berak gogoratzen digunez:

Así mismo es reseñable que los pastores de Urbia, que en la antigüedad pagana ofrendaban sus ovejas a Mari, en su morada de Aketegi en la sierra de Aizkorri, lo hagan en la actualidad a la Virgen de Arantzazu.

Euskaldun garaiz urruneko eta erlijio-moduz ezberdinekoen arteko nolabaiteko lotura eta identitatearen sinbolo izan daiteke, beraz, Arantzazu erreka zahar eta beti berria, Placerren liburuko metaforaren adierazgarri. Egokia da, izan ere, liburua zeharkatzen duen ibaiaren edo errekaen metafora:

Como un río que mana desde el fondo del bosque o brota en las áridas rocas de la montaña y continúa abriendo su cauce serpenteante entre árboles, hierbas, hojas y piedras, alimentado por escondidos manantiales, también la experiencia religiosa nace en la profunda e impenetrable prehistoria de la humanidad y sus aguas surcan el tiempo y la tierra de cada pueblo.

Balio poetiko iradokiorra du ibaiaren metaforak liburuan. Bertara bildutako datu historiko, etnografiko eta soziologiko ugarietan dago horren balio zientifikoa, eta horrelakoen azalpen sintetiko eta egokian, horren balio didaktikoa.

Liburuaren helburua

Eskertzekoa da autoreak hasiera-hasieratik eta argi eta garbi aitortu izana bere liburuarean helburua, euskaldunen erlijiozko ibilbidearena eta berorren identitate kolektiboarena titulu bertan bateratu ondoren:

...mi intención en este trabajo consiste en presentar el proceso religioso en Euskal Herria y sus relaciones, a lo largo del tiempo, con la construcción identitaria vasca.

Arriskatu egin da horrela, aldez aurretiko bi kritika-modu gainditu nahian edo: herriaren identitate etnikoaren hizkera zaharkitu eta zentzugabetzat hartzen dutenena, batetik; eta euskal identitatearen azterketan erlijioa sartzea baztertzen dutenena, bestetik. «Euskal jatorrismora» itzultzea aurpegiratu diote seguruenik haurrenek; «euskaldun fededun» goiburuaren defendatzaile arkaikotzat salatuko dute agian biga-

rrenek. Liburua ez da horrelako aurreiritziekin zuzeneko polemikan sartzen, baina konplexurik gabe bereganatu ditu mada-rikaturiko analisi-ildoak, Euskal Herriaren erlijio-historiaren irakurketa kritikoa egiteko. Era berean, aurpegia ematen dio liburuak nolabaiteko katolikotasun traszendentearen izenean edo, euskal Elizaren ideia susmo txarrez hartu eta txokokeria-tzat arbuiazen duen ideologiari, espainiar –edo frantses– Eli-zari homologatzearen aldera.

Erosoagoa izango zukeen Felixek euskal lurraldeko jende-
en erlijiotasunaren, sinespide eta jardunbide erlijiozkoen, gora-
behera historikoak deskribatzea, eskura dauden ikerketen sin-
tesi «neutrala» eskainiz, historialari ezagunek markaturiko
aroen arabera: erlijio prehistorikoa, erromatar erlijioaren aztar-
nak, hemengo jendeen kristautzearen eta kristau elizaren his-
toria –Erdi Arokoa eta Modernoa–, azken aldiko deskristautze
eta sekularizazioa. Datu historikoen (arkeologiko, etnografiko,
eta soziologikoen) sintesia egitearekin batera, ordea, interpre-
tatu nahi izan ditu gorabeherok, horien irakurketa pertsonala
eginez, euskal identitate kolektiboaren eraikuntza-prozesua-
ren ikuspegitik, hain zuzen.

Liburu ausarta dela uste dut Felixen hau, terminoen ingu-
ruko aurreiritziengatik kokildu ez delako eta horrelakoan azpian
leudekeen arazo adartsuei adarretatik heldu dielako. Hasieran
agerturiko helburuari eusten saiatu da, baita erlijio-erreka lasaia
bestelako korrante indartsuagoaren zurrunbiloan sartu zaio-
nean, edo ibai lasaia adar ugariko delta bihurtu zaionean, edo
ta sekulartasunaren itsasoan nabigatzea gertatu zaionean. Ez
dio nabigatzeari uko egin, beldurtuta ibai-ertzean babesa bila-
tuz edo, eta ez du ibai-adar baketsu eta erosoena aukeratu, baka-
rrean nabigatzekotan.

Sencillamente quisiera seguir la corriente del río religioso en la tie-
rra de los vascos, a través del devenir de los siglos, navegando por sus
aguas, sin naufragar en el empeño.

Placerrek ez digu, beraz, Euskal Herriaren erlijio-nabigazioaren historia «objektiboa» kontatu nahi izan, lehorretik begira edo. Uretan sartu da hasieratik eta uretan egin du azkene-rainoko nabigazioa, korrante indartsuenen kontra igeri eginez sarritan. Kristau izanik, fededun aitortzen du bere burua. Bereztat eta Euskal Herriarentzat erlijioaren, are kristau fedearen bizi-zentzua eta identitate-balioa baieztatzen ditu sakonetik, baina ez sistema itxiztat harturik hori, eta bai eskaintza zabaltzat.

Egokiera onean dator liburua, Elizaren barrutik, albotik nahiz kanpotik azken urteotan eragindako bilaketa espiritual edota erlijiozko berrien argigarri eta lagungarri. Gaurkotasun apartekoa duela uste dut, halaber, Euskal Herriko elizak bizi duen kinka larriari eta eliztar hainbatek ageri duen kezkarri begiratuta, azken apezpiku-izendapenak eta bestelako gatazka mingarriak tarteko. Azken aldian Espainian agertu izan diren albisteen arabera «Euskal Eliz Probintzia» eraikitzea –Iruñeko diozesia buru– ontzat ematen omen du orain Vatikanok, orain arteko jarrera aldatuz; aldaketaren oinarrian Euskal elizbarrutietan ezarritako apezpiku berrien izendapenak eta Gasteizko Jaurlearitza «nazionalistek» galdu izana leudeke, «albis-tearen» inguruko hainbat iruzkin eta interpretazioren arabera; nahiz eta, aldi berean, aitortu arrazoi pastoralek aspalditik eskatzen zutela horrelako erakundea. Nabarmena bezain negargarria izan da kazetari zenbaitek erabilitako arrazoi politikoaren eta pastoralen arteko nahasketa.

Euskaldunen erlijio-historia kritikoa da hemengo hau. Bate-tik, naturaltasun osoz azaltzen dizkio irakurleari euskal pentsatzaile eta idazleek egin izan dituzten kritikak, baita handik eta hemendik agerturiko jarrera anti-erlijiozkoak, agnostikoak nahiz ateoak. Bestetik, apaiz eta teologo izanik, eliztar ageri du zinez autoreak bere burua; baina bere kritikaririk mindue-nak Eliza instituzionalaren zenbait forma eta jokabide historikorentzat izan ditu. Liburuan nabarmentzen duenez, kristau balioak oso sustraituak egon dira luzaroan euskal herritarren kontzientzian Eliza katolikoaren bitartez; eta mendetan bar-

na euskaldun gehienek beren kristau federekin bat eginda sentitu eta bizi izan dute beren euskalduntasuna: horra euskal identitate katoliko herritarra –“euskaldun fededun”–, behin baino gehiagotan inposizio-indar alienatzaile eta antieuskaldunen kontrako borrokaren eragile eta akuilu, estatu «katolikoak» zuzenean nahiz Eliz hierarkiaren bitartez ezarria izan alienazio-politika hori.

Sekularitasuna, aniztasuna eta Eliz ereduak

Liburu hau ez da polemikoa; baina paradajikoa gerta dakioke bati baino gehiagori, dena irakurri ondoren. Izan ere, azken orrialdeetara iritsita, aporia modukoren bat baino gehiago ageri zaio irakurle kritikoari, agian autoreari berari ageri izan zaion bezala: a) Euskaldunen identitateak bere susturriak antzinatiko errito eta mito erlijiozkoetan –nolabait gaur arte iraun dute netan– dituela; baina nolatan gertatuko da horrela kristau fedea euskal identitate jatorrizkoaren adierazgarri, kristautasunaren ibai nagusiak bere baitatik eliztarren identitate pertsonala eta kolektiboa modaltzea baldin badu helburu? b) Identitate etnikoaren eraikitzaile izan zela euskaldunen erlijio-esperientzia, eta identitate horren eroale izan dela erlijiozko ibaiak historian barna; baina nolatan bete dezake erlijioak eginkizun hori sekularizazioaren garaiotan? c) Gaurko Euskal Herriaren erlijiozkoaren eta erlijioarekikoaren ezaugarria aniztasuna dela –fedeen eta fede-gabezien modu ugarien delta–; baina nolatan izan daiteke aniztasun soziala identitate kolektiboaren adierazgarri eta euskarri?

Liburuaren konklusioan korapilo horiek askatzeko iradokizun baliagarriak ematen ditu autoreak. Guztien giltza liburuaren aurkezpeneko esaldi honetako hitzotan egon daiteke: «continuidad y discontinuidad»... «relación y diferenciación».

La aportación propia y original de este estudio consiste –al menos es mi objetivo– en observar y constatar la continuidad y discontinui-

dad del hecho religioso entre los vascos, su relación y diferenciación con su identidad hasta nuestro tiempo.

«Erljioa» eta «identitatea»: liburuko bi hitz gakoak prozesu historiko luzearen baitan erakusten dizkigu Placerrek, bi fenomeno eta ibilbide gorabeheratsu eta batzuetan kontradiktorio gisa. Bien arteko erlazioa ere ez da adiera bakarreakoa eta betirako definitua, dinamikoa eta aldakorra baizik. Alde horretatik edonolako «esentzialismoaren» edo «jatorrismoaren» salaketatik salbu geratzen da zalantzarik gabe.

Aipaturiko aporia horiek askatzeko –eta, bide batez, gora-gor iradokitako aurreiritziak gainditzeko– *identitatearen, sekulartasunaren* eta, ondorioz, *euskal elizaren* interpretazio eta ikuspegi berriak bilatu beharra dagoela dirudi.

Hasteko, libertate bezala definitzekoa da funtsean identitatea. Bakoitzaren –gizabanakoaren nahiz gizataldearen– norbera izatean datza identitatea, alienazioaren edo besteren menpeko eta araberako izatearen kontrakoa. «Norberatasuna» eta «askatasuna» bateraturik daude. Eta herri jakin baten identitate etnikoa-kolektiboa deskribatzean ekarri ohi duten hainbat elementu bereizgarri (kultural, juridiko politiko... eta erlijiozko) funtsezko definizio haren gain ulertzekoa da. Herriaren identitatearen historia askatasunaren aldeko ahaleginaren historia da azken batez.

Sekulartasuna pentsamendu kritikoa da, bereziki pentsaera mitiko eta erlijiozkoari buruz, baina ez da funtsean fedearen ukazioa. Erljioa bezala era askotara uler eta bizi daiteke sekulartasuna bera ere: fedegabea (ateoa, agnostikoa) nahiz fededuna izan daiteke pentsamendu sekularra. Hori bereganatua duen kristau fededunak fede kritikoarekin berdintzen du sekulartasuna. Errito eta mito herritarren balioztapen sakratuaren kontrakoa da sekulartasuna –ez derrigorrez horien balio kultural eta identitarioaren aurkakoa–; era berean sekulartasun fededunak bere baitatik kritikaren pean jartzekoak ditu errealitate sekularren sakralizazio-forma historikoak oro. Bes-

talde, sekularizazio-prozesuak Euskal Herriaren garai bateko identitate-elementuak eraldatu baditu (hizkuntza, kultura, esku-bideak, etab., lehengo mito eta errituen ordez) fededun kritikoari dagokio horien irakurketa eta interpretazio teologiko kritikoa egitea.

Euskal Herriko Kristautasunaren –berezi Eliza Katolikoaren– historia kritikoa da neurri handi batez Placerren liburuak. Horren barruko forma historiko ezberdinak nabarmendu ondoren, azken urteotan molde berriak bilatzeko ahaleginen berri eman digu, Eliz komunitatearen baitako aniztasuna azpimarratuz. Aldi berean, bere kezka ageri du, Espainiako apezpikuen konferentziatik eta Erromatik gidatuta Elizako goi-hierarkiak Euskal Herrian ezarri nahi duen kristandade-eredu berrituaren aurrean. Horren aurrez aurre bestelako Eliz eredu proposatzen du Euskal Herriarentzat, honelatsu irudika dezakeguna: Fededunen komunitatea, gure gizartearen sekularizazioa asumituz eta horren barruko aniztasun ideologiko eta erlijiozkoa onartuz, Herri honen askapen-bidea –beraren identitate eta nortasunarena– egingo eta egiten lagunduko duena, bestelako eragile laiko nahiz erlijiosoekin lankidetzan, horretarako bere mezu eta esperientzia ebanjelikoaren ekarpena eginez.

Ez «Euskaldun fededun», ez «Jainkoa eta Lege Zaharra» dira Eliz eredu horren goiburua, «Jainkoa eta pobreak» (=zapalduak, baztertuak) baino.